



## ZARATAMOKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA

1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa



|  |   |
|--|---|
| <b>Dokumentuaren izenburua:</b>                      | <b>ZARATAMOKO TOKIKO AGENDA 21<br/>1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa</b>   |
| <b>UT21 Nerbioi-Ibaizabal<br/>Laguntza teknikoa:</b> | UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.  |
| <b>Jasotzailea:</b>                                  | <b>ZARATAMO</b>   |
| <b>Parte hartu duten udalak:</b>                     | Arakaldoko udala<br>Arrankudiagako udala<br>Arrigorriagako udala<br>Etxebarriko udala<br>Galdakaoko udala<br>Orozkoko udala<br>Ugao-Miraballeseko udala<br>Urduñako udala<br>Zaratamoko udala<br>Zeberioako udala |
| <b>Eskualdeko Jasangarritasun<br/>Bulegoa</b>        | UT21 Nerbioi-Ibaizabal  |
| <b>Orrialdeak:</b>                                   | 42  |
| <b>Hizkuntza:</b>                                    | Euskara   |
| <b>Bertsioa:</b>                                     | Behin betikoa   |
| <b>Entrega data:</b>                                 | 2012ko iraila   |

## AURKIBIDEA

|   |                                      |
|---|--------------------------------------|
| LABURPEN EXEKUTIBOA.....  | <b>¡Error! Marcador no definido.</b> |
| AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA .....  | 8                                    |
| HELBURUAK .....   | 9                                    |
| LAN PROGRAMA.....   | 10                                   |
| ARLO TEMATIKOAK.....  | 11                                   |
| EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK ..... | 12                                   |



## LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, Diagnostikoaren ondorio nagusienak adierazten dira:

### GIZARTEA ETA EKONOMIA

Zaratamok, biztanle hazkuntzako aldi bat ukan ondoren, badirudi alderantzikako joera hartu duela berriro ere **bertan bizi direnen mailakako galera** egoera edukitzen ari baita egun. Egoera honi aurre egin behar zaio aldi berean naturala ez den era batean haztea ekidinez. Udalerriaren zatiketa geografikoak baldintzatutako **gizarte kohesio** handiagoa lortzea da lanari ekiten zaionean aurre egin behar zaion erronketariko bat.

**Industri sektorea** da pisurik handiena duena udalerriaren lan okupazioan, baina beheranzko joera batekin. Era berean, eraikuntza sektorearen pixkanakako hazkundera, hirugarren sektorearen beherakada txiki bat eta nekazaritza sektorearen ia guztizko desagertzea gertatu da. Udalerrian dagoen industriak ahalbidetzen du beste udalerrietako BPG per capita baino dezente handiagoa izatea.

**Biztanleria euskaldunari** dagokionez Zaratamo Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago, azken urteetan antzeko portzentajetan mantenduz, etxeetan eta kalean gaztelera gailentzen delarik. Euskararen arloko pertsonal teknikoaren gabeziari eta **Euskararen Biziberritze Plan bat eta Euskararen Erabilera Plan bat ez egoteari** irtenbide bat bilatu beharko dio Udalak, Euskararen erabilera eta normalizazioa oztopatzen baitu esparru guztietan.

**Kirol eta kultur jardueren garapenerako guneak** egokitzea, berritzea eta balioan ipintzea udalerriaren erronka garrantzitsua da eta baita antolatutako kultur eta kirol gertaeren eskaintza eta gizarte erantzun handiagoa bermatzen duen Udal eta gizarte eragileen arteko **jarduera koordinatuen** garapena ere.

Gizartearen, lanaren eta udalerriaren arloetan **genero berdintasunaren** bultzadarako zeharreko ekintzak garatzea, biztanleriaren artean Informazio eta Komunikazio Teknologien ezaguera eta erabilera handiagoa lortzea eta udal ekipamenduen **irisgarritasuna** hobetzea dira behar bezalako gizarte ongizate bat lortu ahal izateko betetzeke dauden erronkak.

**Etxebizitzaren zaharberritzea** sustatzea eta birgaiketarako zein energi iraunkortasunerako diru laguntzei buruzko informazioa indartzea, eraikita dagoen ondarearen kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra lehenetsiz, etxebizitza politikaren arloan kontutan hartu beharreko lehentasunak dira.

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

Zaratamok **orografia gorabeheratsua** daukan udalerria da lursail aldapatsuak gailentzen baitira. Zonalde lauak, berriz, Nerbioi eta Ibaizabal ibaien ertzetan kokatuta egonik. Udalerri honetan lurzoru urbanizaezinak lurraldearen zati handia hartzen du, bere **paisaian** basoak dira gailentzen direnak eta hauetan batez ere jabego pribatukoak diren koniferoak dira nagusi.

Herri planeamenduko **Plan Orokorren berrikuspena** udalerriak etorkizunari begira duen erronka esanguratsuenetarikoa da. Planeamenduaren berrikuspenak, iraunkortasun eta energi eraginkortasuneko irizpideak kontutan izateaz gain, ondokoak ere baitaratu behar ditu: arkitektura intereseko eraikinak, degradatutako eremuen berreskuratzea, arkitektura ondarearen elementuen birgaitzea, behar gehien duten auzo eta puntuetan erreforma urbanistikoaren exekututzea eta nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babesa.

Udalerriak natur balioa duen ingurua du. Besteak beste, ondoko elementuak nabarmentzen dira: lehentasunezko interes komunitarioko habitatak, bi hezegune, harizti eta baso mistoen azalera handia eta interes geologikoko puntu bat. Hauetan natur intereseko lekuak daude, batez ere ur-ibilguei loturikoak eta hauen babesa, kontserbazioa eta agerian jartzea edo goratzea, **inguru naturalaren** antolamendu eta kudeaketarako adierazgarri bezala hartzen ditugu.

Bere inguru funtzionalarekin dituen **errepide bidezko komunikazioak** onak dira, baina inguruko herriekin errepidezko garraio publikoak medio dituen loturak eskasak dira, , bide eta tren azpiegiturek herri barnean sortzen dituzten hesiek egoera areagotzen dutelarik.

Udalerriko puntu desberdinetara eta ekipamenduetara iristeko **mugikortasun** baldintzak hobegarriak dira. Udalak aurreikusita dauka oinezkoen mugikortasunari loturiko azpiegituren hobekuntzarako jarduerak bultzatzea hiru herrigune handien oinezko konexioarekin hasiz.

## BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

Zaratamo, **Bizkaiko Ur Partzuergoan sartu ondoren**, kontsumitutako eta banatutako ur bolumenen erregistroa eta kontrola hobetzera bideratu behar ditu bere esfortzuak, azpiegituren modernizazioari, hala nola, udal sarearen eta honetatik kanpo geratzen diren etxebizitzaren saneamenduaren hobekuntzari arreta berezia ipiniz.

**Urteko biztanleko hondakinen sorrerak** goranzko joera erakusten du, era berean hondakinen berreskurapen portzentajea maila berdintsuan mantendu delarik azken urteetan, hondakinen murrizketan eta banaketaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitu beharra dagoen arren.

**Udalerraren energi egiturak**, EAEko beste udalerrri askorenaren antzekoa, erregai fosilen erabilera handia eta Berotegi Efektuko Gasei (BEG) eginiko ekarpen nabarmena dakar berekin. Beraz, arlo honetan sakontzea udalerrriak duen beste erronka handietako bat da, ez soilik maila publikoan baizik eta baita maila pribatuan ere. Era horretara iturri ez berriztagarriekiko menpekotasuna murriztuko da eta BEGen murrizketari ekarpena egingo zaio.

Azken urteotako kontsumo industrialaren beherakadatik eratorritako energi kontsumo gero eta txikiagoa kontutan edukirik, energia berriztagarrien garapena eta kale argiztapenaren eraginkortasuna sustatzea zeregin lehenenak bihurtu dira.

## SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

**Partaidetza kultura nahiz kontzientzia komunitarioa sortzen duten partaidetza egitura berrien sendotzerantzko** bidean aurrera egitea hasiberria den prozesua da baina fruituak jasotzen ari da jada.

**Sentikortzearen, prestakuntzaren eta jardunbide egokietan** oinarritutako herritarren eta Tokiko Administrazioaren egunez eguneko ohitura aldaketa udalerraren tokiko iraunkortasun prozesuaren giltzarria da.

Burutzen ari diren politika zenbaitzuen zeharreko izaerak **departamentu arteko koordinazio eta elkarlana are gehiago indartzeko** beharra agerian uzten du.

## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21**: Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
2. **Industriako Agenda 21**: Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
3. **Eskolako Agenda 21**: Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
4. **Hondakinen kudeaketa**: Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorrak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
5. **Mugikortasun iraunkorra**: Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.

6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Zaratamoko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.



## HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitu.
- Plana iraunkortasunaren tokiko kudeaketaren bilakaerara egokitu.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrian giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutuan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berrian sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

## LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarrizko metodologia “**EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa**” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarrizko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udal teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez edo talde lanaren bitartez Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (\*) bitartez seinalatu dira.*)

## ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

### GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. Biztanleria
2. Ongizatea eta gizarteratzea
  - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
  - Genero berdintasuna
  - Elkarbizitza
  - Osasuna eta osasun zerbitzuak
  - Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena
3. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
4. Etxebizitza
5. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
  - Ekonomia egitura eta jarduera maila
  - Lehen sektorea
  - Bigarren sektorea
  - Zerbitzuen sektorea
  - Turismo eta ostalaritza sektorea
  - Enplegua eta lan merkatua

### NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

9. Ura
10. Hondakinak
11. Energia
12. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
13. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak
14. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa
15. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


6. Lurraldea eta plangintza
7. Natura eta bioaniztasuna
8. Mugikortasuna eta garraioa

### SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

16. Komunikazioa, sensibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
17. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:





- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jarduera esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.


|  |   |
|--|---|
| <p><b>BALORAZIOA</b></p>  <p><b>Ez baloragarria</b></p> | <p>Balorazioa egiteko irizpideak "EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa" agertzen dira.</p> |
|--|---|

**EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK**






**GIZARTEA ETA EKONOMIA**






**1. BIZTANLERIA**

| <i>Azpieremua</i>                               | <i>Egoera</i>   | <i>Ondorio nagusiak</i>  | <i>Hobekuntza helburuak</i>                                     |
|---|---|--|---|
| <b>1.1. Lurardearen testuinguruan kokatzea</b>  |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zaratamoko biztanleria dentsitatea Bizkaiko batez bestekoaren oso azpitik dago.</li> <li>2008an joera aldaketa bat gertatzen da eta populazio galera hasten da nahiz eta etxebizitza berrien eraikuntza eman.</li> <li>Zaratamoko Udalak 2000. urtean gauzatu zuen azken etxebizitza promozioa biztanleria finkatzera bideratutako ekimen batzuen barruan. Honek biztanle berrien etorrera eragin zuen, baina udalerrriaren lan jarduera baxuak lohiri batean bihurtzen du Zaratamo.</li> </ul> | <p>✓ Ez da eskuhartzeko lehenasunezko arlorik identifikatu.</p> |
| <b>1.2. Biztanleriaren bilakaera</b>            |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gaur egungo interesa biztanleak udalerrian gera daitezen ahalegintzean datza, modu ez natural batean handitzea ekidinez.</li> <li>20 urte bitarteko biztanleria gazteak %18,19a suposatzen du, zifra hau eskualdeko, probintziko eta autonomia erkidegoko batez bestearen oso antzekoa delarik.</li> </ul>  |   |
| <b>1.3. Egitura demografikoa</b>                |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zaharkitze indizea igo egin da 2011n %17,95ean kokatuz, UT21 Nerbioi -Ibaizabal udalerrietako hirugarren daturik baxuena eta Bizkaiko batez bestekoa baino baxuagoa izanik.</li> </ul>  |   |
| <b>1.4. Mugimendu naturala eta migratzailea</b> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hazkunde begetatiboa aldakorra izan da azken hamarkadan, 2009an positiboa izanik.</li> <li>Atzerritar maila 1,85 portzentaje puntu hazi da 2003 eta 2011 bitartean, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren azpitik dagoelarik.</li> <li>Kanpoko migrazio saldoak 1,18 atzerritar berri 1.000 biztanleko indizea aurkezten du 2010ean.</li> </ul>   |   |










| <i>Azpihermua</i>   | <i>Egoera</i>   | <i>Ondorio nagusiak</i>  | <i>Hobekuntza helburuak</i> |
|---|---|--|-----------------------------|
| <p><b>1.5.</b><br/> <b>Populazioaren</b><br/> <b>banaketa,</b><br/> <b>lurraldeka</b></p> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bost bizitegi gune daude, non biztaliaren %99,88a bizi den gutxi gorabehera.</li> <li>• Miltzo hiritarraren dentsitatea 15,42 etxebizitza/ha-koa da, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren nahiko azpitik.</li> <li>• Ezin izan da egiaztatu despopulazio arriskua existitzen denik.</li> </ul> |                             |

## 2. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA







| Azpi-eremua  | Egoera  | Ondorio nagusiak  | Hobekuntza helburuak  |
|--|---|---|---|
| <b>2.1. Gizarte arazoak</b>  |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zahartze demografikoaren prozesu pixkanakakoa.</li> <li>2003 eta 2008 artean, Oinarrizko Errentaren jasotzaile diren familien kopurua hazi egin da. Batez bestekoaren azpitik dago.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Biztannleriari gizarte zerbitzuen inguruan informatzen jarraitu.</li> </ul>  |
| <b>2.2. Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak</b>  |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Oinarrizko Errenta pentsio osagarri gisa tipologia garrantzitsu bat da.</li> <li>2003 eta 2007 artean, Gizarte larrialdiko laguntzaren jasotzaile diren familien kopurua mantendu egin zen.</li> <li>2011n ez ziren bete Gizarte larrialdiko laguntza eskakizun guztiak. Udalak aparteko sorta bat zuzendu zuen.</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Genero berdintasunerako zeharreko ekintzak, beste eskuduntza arlo batzuk medio garatu.</li> </ul>  |
| <b>2.3. Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa</b> |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Atzerritar biztanleria ez da ugaria, egonkorra da eta orokorrean ondo integraturik dago.</li> <li>Udalerrian ez dago ekipamendu sozialik.</li> <li>Arkotxan Zahar-etxerako eremu bat prestatu zuten, baina ez da ireki.</li> <li>Zaratamon bizi diren pertsonentzat zahar egoitzak eta eguneko zentroak Basaurin, Galdakaon eta Arrigorriagan kokatzen dira.</li> <li>2012 aurreko urteetan etxez etxeko laguntza zerbitzuan itxarote-zerrenda egon da.</li> <li>Gazteen informazio eta orientazio bulego bat dago.</li> <li>Ez dago berdintasun arloko berariazko zerbitzurik.</li> <li>Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuen ezaguera falta antzematen da biztanleriaren artean. 2012an zerbitzuen katalogoa banatu da postontzietan.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekipamenduen irisgarritasuna hobetu.</li> <li>✓ Kohesio soziala eta herritarren udalerririkiko identifikazioa sustatzen jarraitu.</li> <li>✓ Kontsultategian eskaintako zerbitzuen zabalkuntza kudeatu.</li> </ul> |
| <b>2.4. Berariazko gizarte politikak</b>   |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalaren jabetzakoak diren etxebizitza hutsen eskaera dago pertsona batzuen partetik.</li> <li>Ongizateari zuzendutako Udalaren batez besteko aurrekontua handitu egin da 2001 eta 2008 artean, baina aldi guztian da batez bestekoena baino txikiagoa. 2012an superabita aurreikusten da ongizateko aurrekontuan.</li> <li>Ez dago Irisgarritasun Planik.</li> <li>Irisgarritasuna betetzen duten udal ekipamenduen portzentaia baxuena duen eskualdeko udalerria da.</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Banku eta posta zerbitzuaren hobekuntza sustatu.</li> </ul>  |
| <b>2.5. Gizonezko eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan</b>           |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ez da aukera berdintasuneko berariazko politikarik garatu atzerritarrentzat ezta gizonezko eta emakumezkoentzat ere.</li> <li>Emakumeen jarduera tasak eskualdeko batez bestekoen antzekoak ziren 2006 urtera arte. 2010ean batez bestekoen azpitik aurkitzen da.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Teknologia berrien eskuragarritasuna hobetu.</li> </ul>  |

| Azpieremua  | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak |
|---|---|--|----------------------|
| <b>2.6. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udal esparruan</b> |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2008 urtera arte emakumezkoen langabezi tasa gizonezkoenaren gainetik mantentzen zen, 2009tik aurrera emakumezkoen langabezi tasa gizonezkoen langabezi tasa baino baxuagoa da.</li> <li>• Emakumezkoen langabezi tasak goranzko bilakaera izan du, 2011n batez bestekoen azpitik kokatuz.</li> <li>• Urteko kontratu mugagabeen portzentaian zifra altuena duen bigarrenengo udalerrria. %29,4a egin ziren bakarrik emakumezkoek, batez bestekoen nahiko azpitik dagoen zifra izanik.</li> <li>• Jarduera politikoaren kasuan emakumearen presentzia altua dela uste da eta elkarte jardueran partaidetza mailakoa. Elkartearen lidergoan gizonezkoekin konparatuz presentzia txikiagoa sumatzen da.</li> </ul>  |                      |
| <b>2.7. Genero berdintasuneko politikak</b>   |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalbatzan emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa den udalerririk bakarra da.</li> <li>• Soilik emakumez osatutako elkarte bat dago, baina azken aldian pixka bat geldirik dagoena.</li> <li>• Delitu indizea 2009an eskualdeko batez bestekoaren gainetik dago, nahiz eta 2003-2009 artean proportzio berdinean hazi den. Ez da uste delitu handiak egiten direnik eta ez dago alarma sozialik, gertakari puntualak dira.</li> </ul>  |                      |
| <b>2.8. Bizikidetzaren eta herritarren segurtasuna</b>                              |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herria geografikoki biztanlegune nagusitan banatuta egon izanak gizarte kohesio eza ekarri du neurri handi batean.</li> <li>• Kohesio handiago bat lortzeko lanean aritzea garrantzitsutzat jotzen du Udalak.</li> </ul>  |                      |
| <b>2.9. Ekipamenduak eta osasun langileak</b>                                       |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen Mailako Arretako bi kontsultategi (Arkotxa eta Elexalde), zeintzutan mediku batek eta praktikante batek lanaldia banatzen duten.</li> <li>• Arkotxan farmazia dago.</li> <li>• Osasun estaldura egokia dela pentsatzen da.</li> </ul>   |                      |
| <b>2.10. IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna</b>                  |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontsultategiko zerbitzuak zabaltzeko eskaera dago biztanleriaren partetik, analisiak egin daitezkeen.</li> <li>• Udal auto zerbitzuak astean behin behar duten pertsonen eramatean die Arrigorriagako anbulategira analitikak egitera.</li> <li>• Telekomunikazioetarako irisgarritasuna ez da egokia. Zuntzaren heltzea beharrezkoa da eta Udala lanean ari da udalerrira heldu dadin (Arkotxako zonalde txiki batetara heltzen da).</li> <li>• Biztanleriaren ezjakintasuna mekanismo desberdineetara heltzeko.</li> <li>• Arkotxako auzoan eta Elexalden Kzgunea dago.</li> <li>• Zenbait postontzi aurkitzen dira. Zerbitzua nahikotzat jotzen da.</li> <li>• Banku bulegorik ez dago, baina bai kutxazain automatiko bat Arkotxan. Kexak jasotzen dira operatibo ez dagoen maiztasunarengatik.</li> </ul> |                      |






### 3. HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

| Azpi-eremua  | Egoera  | Ondorio nagusiak  | Hobekuntza helburuak   |
|--|---|---|--|
| <b>3.1. Hezkuntza eskaintza</b>                              |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalaren hezkuntza eskaintza haurreskolak eta haur eta lehen hezkuntzak osatzen dute.</li> <li>Haur eta lehen hezkuntzan matrikulatutako ikasle kopuruak behera egin du.</li> <li>Hezkuntza sistema positiboki baloratzen da; Bizikidetzaren Pentacidaren proiektuaren esparruan egiten da lan, gertuko udalerrietako ikasleak erakarriz.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Eskola laguntzako udal zerbitzu bat ezartzeko egokitasuna aztertu.</li> </ul>   |
| <b>3.2. Hezkuntza eskaera</b>                                |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza publikoaren eskaintza nahikotzat jotzen da.</li> <li>Hezkuntza instalazioak erreformatuak izan dira, eta egokiak direla pentsatzen da.</li> <li>Eskola adinean dagoen biztanleriak adin leerro guztietan behera egiten du, 10etik 14ra bitarteko urteetan izan ezik.</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Eskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatu.</li> <li>✓ Euskararen gizarte erabilera bultzatu Plan berri horren baitan ezartzen diren neurrien koordinazioaren bidez eta baita udaletxearen hezkuntza, kultura eta aisialdiarekin erlazioaturiko beste ekintza batzuekin.</li> </ul> |
| <b>3.3. Eskaintza-eskaera balantzea</b>                      |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Eskaera udalerriri bertako edo inguruko herrietako hezkuntza eskaintzak guztiz asetzen du momentuz.</li> <li>Eskola porrotaren maila zein den ez da ezagutzen. Udalerriri kezkutzen dion gai bat da. Eskola laguntzarako udal zerbitzua berreskuratzen ari da gaur egun.</li> </ul>  |  |
| <b>3.4. Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila</b> |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Biztanleriaren hezkuntza maila eskualdeak duenaren nahiko antzerakoa da, hezkuntza maila baxua duen biztanleria gehiago dagoen arren.</li> <li>Biztanleria euskaldunaren portzentaia, %38,5 2006ean, eskualdeko batez bestekoa baino txikiagoa da.</li> </ul>  |  |
| <b>3.5. Euskalduntze maila</b>                               |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Biztanleria euskalduna 1996 eta 2006 artean mantendu egin da.</li> <li>Etxeetan gaztelararen erabilera nabarmenki gailentzen da (%75), 1996-2006 artean handitu delarik.</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Euskararen Erabilera Plana garatu udal administrazioan egiten den euskararen erabilera normalizatu ahal izateko.</li> </ul>   |
| <b>3.6. Ekipamendua eta baliabideak</b>                      |   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxeetan euskararen erabilera gutxitu egin da.</li> <li>Kalean gaztelararen erabilera gailentzen dela somatzen da.</li> <li>Arkotxan euskararen erabilera eta ezaguera seguraski baxuagoa dela somatzen da.</li> <li>Ez dago euskara irakasteko edo bultzatzeko berariazko zentrorik.</li> <li>Ez dago euskara teknikaririk, ezta Euskara Biziberritzeko Planik eta erabilera Planik ere.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kultur ekipamendu batzuen egoera hobetu.</li> </ul>   |
| <b>3.7. Udal politikak</b>                                   |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskararen erabilera edo/eta normalizazioa sustatzeko jardueren programaziorik ez dago, euskarazko jarduerak egiten diren arren.</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kirol ekipamenduak biztanleriaren gaur egungo eta etorkizuneko beharretara agokitzeari buruz hausnarketa bat burutu.</li> </ul>   |
| <b>3.8 Euskara udal jardueran</b>                            |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udal langileen artean Euskararen ezaguera maila baxua da; bere kide gehienek ez daukate eskatzen den hizkuntza profila. Orokorrean, gaztelera gailentzen da udal zerbitzuetan.</li> <li>Zinegotzien gehiengoak elebiduna da, eta gaztelera gailentzen da Bilkuretan eta alor politikoan orokorrean, nahiz eta euskara ere erabiltzen den.</li> </ul>   |  |
| <b>3.9. Euskara eta kultura</b>                              |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerriko toponimiarekin mapa bat zabaldu du Udalak 2012an.</li> <li>UT21 Nerbioi-Ibaizabal mailan hizkuntza ondare, ondare etnografiko eta kulturalaren biltze eta difusio lan handia ari da egiten.</li> <li>Egungo kultur ekipamenduak nahikotzat jotzen dira jarduerak gehienak egiteko, nahiz eta</li> </ul>   |  |















| Azpieremua   | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak |
|--|---|--|----------------------|
| <b>3.10. Kultura ekipamenduak eta horiek erabilera</b> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Arkotxako eraikinak ez dituen baldintza onak aurkezten.</li> <li>Ekipamendu batzuen erabilera, liburutegia bezala, baxutzat jotzen da, beste ekipamendu batzuk, entzunaretoa bezala, infraerabiliak bezala balioesten diren bitartean.</li> <li>Udaletik egindako kultur jardueren programa bariatua da.</li> <li>Elkarteek burutzen duten programazio zehatz bat dago.</li> </ul>  |                      |
| <b>3.11. Kultura jarduerak eta partaidetza</b>         |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kultur jardueren eskaintzari biztanleriak ematen dion erantzuna ahula dela uste da, partaidetza ertaina lortuz, nahiz eta ez egon jende asko elkartzen duen jarduerarik.</li> <li>Zaratamoko tamaina duen udalerrri batentzat, elkarte multzoa handia dela uste da, ondo antolatuta egonik eta aktiboak izanik, eta honek edozein ekimen martxan jartzea errazten du udal erakunde eta bizilagunen arteko lotura izanik.</li> </ul> |                      |
| <b>3.12. Herritarren dinamika kulturala</b>            |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrian parte hartzeko ohitura gehiegirik ez dagoela uste da, eta honek kultur eskaintzaren erantzunean eragina izan dezake.</li> </ul>  |                      |
| <b>3.13. Kirol ekipamenduak eta horien erabilera</b>   |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kirol ekipamenduak nahikotzat jotzen dira.</li> <li>Kirol ekipamenduak biztanleriaren gaur egungo eta etorkizuneko beharretara agokitzeari buruz hausnarketa bat egiten ari da.</li> <li>Arkotxa eta Elexaldeko pilotalekuen erabilera handia da, gainontzeko ekipamenduen erabilera ezagutzen ez den bitartean.</li> </ul>   |                      |
| <b>3.14. Kirol jarduerak eta partaidetza</b>           |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gaur egun futbol zelaia ez da erabiltzen.</li> <li>Futbol zelaiarentzat erabilera bat bilatzea interesgarria dela uste du Udalak, hala nola saskibaloiko saskiak ezartzearen aukera aztertzea.</li> <li>Udal kirol programaziorik ez dago.</li> </ul>   |                      |
| <b>3.15. Herritarren kirol dinamika</b>                |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerriko kirol eskaintza kirol elkarten bidez antolatzen da.</li> <li>Udalerrian sustatzen diren kirol jardueren aurreko herritarren partaidetza eta erantzun maila altua dela uste da. Biztanleriaren aldetik ez da eskaera zehatzik identifikatu.</li> </ul>  |                      |






#### 4. ETXEBIZITZA

| Azpi-eremua   | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak  |
|---|---|--|---|
| <b>4.1. Etxebizitza-parkearen ezaugarriak</b>                                     |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza dentsitatea bizitegi lurzoruan %60 jaitsi da 2004 eta 2011 bitartean.</li> <li>Nagusi den etxebizitza mota baserriak eta eraiki berriak diren familia bakarreko etxebizitzak dira.</li> <li>Alokairuzko etxebizitzaren kopurua ez da ezagutzen, baina txikia dela uste da.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Zaharberritzea sustatu eta informazioa indartu zaharberritze eta efizientzia energetikoaren gaineko laguntzen inguruan.</li> </ul> |
| <b>4.2. Etxebizitzaren antzintasuna eta zaharberritzea</b>                        |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Babestutako etxebizitza parkerik ia ez dago baina Udalak babes ofizialeko etxebizitzak, tasatuak eta alokairu sozialekoak eraikitzea dauka aurreikusita.</li> <li>Gaur egun etxebizitza huts kopurua 126 izatera heltzen da (parkearen %16,6a). Udalak uste du benetazko zifra ez dela horren altua.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Babestutako etxebizitza eskaintza sustatu.</li> </ul>  |
| <b>4.3. Higiezinaren eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza</b>                     |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitzak zaharberritzeko beharra dago Moioordenen eta, batez ere, Burbustu eta Arkotxan non etxebizitzak kalitate baxuagokoak diren.</li> <li>2010ean 146 etxebizitza zeuden exekutatzeko, zifra hau handia dela irizten delarik.</li> <li>Etxebizitzaren eskaintzaren kuantifikazioa 195 etxe eraikitzean datza.</li> </ul>  |   |
| <b>4.4. Etxebizitzaren beharra eta eskaera eta eskaintza-eskaeraren balantzea</b> |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>2003 eta 2010 bitartean emandako etxebizitza berrien lizentziak gutxituz joan dira 2010eko zifra batez bestekoen oso azpitik dagoelarik.</li> <li>Gaur egun etxebizitza eskaera handia da eta biztanleak beste udalerrira batzuetara joen ez daitezkeen etxebizitza berrien beharra dagoela uste da.</li> <li>Hazkuntza aurreikuspenaren arabera, exekutatzear dagoen etxebizitza kopurua etorkizuneko eskaera asetzeko aski dela uste da.</li> </ul> |   |
| <b>4.5. Erakunde arloa</b>  |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza hutsaren tratamendura bideratutako politika eta programik ez dago.</li> </ul>   |   |

## 5. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA







| Azpi-eremua   | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak   |
|---|---|--|--|
| <b>5.1. Eredu ekonomikoa</b>  |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Establezimenduen portzentai handiena zerbitzuen sektoreari dagokio, nahiz eta UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren portzentaiaren nahiko azpitik egon.</li> <li>• Establezimenduen laurdena eraikuntza sektorekoa da, udal-erri multzoan bigarren zifrarik altuena mantenduz.</li> </ul>   | <p><b>Udal eta gairikoko eskumenekoak</b></p> <p>✓ Enpleguaren sustapenerako eta ekonomi garapenerako eskualdeko zerbitzu mankomunatuak, zerbitzu hau ez duten udal-erri-entzako, sortzeko aukera aztertu. Beste batzuen artean ondorengoak barne hartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enplegu eske dabilen sektoreen beharrei egokitu-tako prestakuntza politika diferentziatuak bultzatu.</li> <li>- Lanbide heziketako eta prestakuntza jarraia eskaintzen duten zentroekin elkarlanean aritu enpleguaren eskaintza eta eskaeraren arteko harremana optimizatzeko.</li> </ul> <p>✓ Tokiko enpresek lan poltsa erabiltzea bultzatu, tokiko enplegarritasuna bultzatzearen.</p> |
| <b>5.2. Jarduera ekonomikoaren maila orokorra</b>                       |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpleguaren egitura Nerbioi-Ibaizabaleko UT21aren antzeko eredu jarraitzen du, nahiz eta zerbitzu eta eraikuntza sektoreen pisu handiagoarekin eta industria eta nekazaritzaren pisu txikiagoarekin.</li> </ul>   |  |
| <b>5.3. Familiaren ongizate ekonomiko maila</b>                         |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• BEG ari egiten zaion ekarpenaren arabera, industria sektorea UT21 Nerbioi-Ibaizabalaren nahiko gaitetik kokatzen da eta zerbitzu sektoreak UT21eko batez bestekoak baino presentzi txikiagoa du.</li> <li>• BPG Per capita handienetakoa duen eskualdeko udal-erri-entzako bat da, eta bigarren hazkunde handienarekin 1996 eta 2008 bitartean.</li> </ul>  |  |
| <b>5.4. Lehenengo sektorea. Sektorearen egitura.</b>                    |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• BPGaren hazkunde-tasa 1996 eta 2000 artean aurreko urteetan baino handiagoa izan da.</li> <li>• Pertsonako gutxi-tako errenta 1997 eta 2006 bitarte hazi egiten zen, baina aurreko urteetan azpitik.</li> <li>• Azierda unitateen txikitzea eman da 1989 eta 1999 artean, txerri-azierdaren jaitziera nabarmenarekin. Aurkezten dituzten zifrarik testimonialak dira.</li> <li>• Gaur egun lehenengo sektorearen 3 ustiategi daude jardura bakarreko pertsonalarekin. Adin maila altuko, jende berri gutxi-tako eta errentagarritasun gutxi-takoko ustiategi txikiak dira.</li> </ul> |  |
| <b>5.5. Lehenengo sektorea. Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b> |   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Abeltzain eta nekazal jardura ere bada bigarren jardura bezala eta kasu askotan norberaren kontsumora fokaturik.</li> <li>• Basolanda-keten jabe batzuk badaude.</li> <li>• Udalak lehenengo sektorea suspertzea interesgarria dela pentsatzen du.</li> <li>• Industria jardura da diru-sarrera iturri nagusia udal-errian.</li> <li>• Tamaina ertaineko industri establezimendu gehien dituen bigarren udal-erria.</li> </ul>  |  |
| <b>5.6. Bigarren sektorea. Sektorearen egitura</b>                      |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren sektoreko langileen batez besteko kopurua 2005etik jaitziz doa, nahiz eta beti UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko zifren gaitetik egon.</li> <li>• 2008 arte eraikuntza establezimenduen kopurua UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoa baino handiagoa zen, baina 2009tik aurrera azpitik kokatzen da.</li> <li>• Industria sektoreak BEGari egiten dion ekarpena azkeneko hamarkadan jaitzi egiten da.</li> </ul>   |  |




| Azpieremua   | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak   |
|--|---|--|--|
| <b>5.7. Bigarren sektorea.</b><br><b>Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>   |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Industria sektoreak BEGari egiten dion ekarpenean UT21 Nerbioi-Ibaizabalen pisu handiena duen hirugarren udalerrria da.</li> <li>• Udalerriko biztanleria okupatuaren portzentaia industria sektorean jaitsi egiten da, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoa baino baxuagoa eta Bizkaikoa baino altuagoa izanik.</li> <li>• Eraikuntza sektorearen pisua UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoarena baino handiagoa da 2008an, aurreko urteetan txikiagoa zen bitartean.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Emakumea lan munduan sartzeko politikak bereziki indartu.</li> <li>✓ Bultzada handiagoa eman lehen sektoreari.</li> </ul> |
| <b>5.8. Zerbitzuen sektorea:</b><br><b>Sektorearen egitura.</b>                    |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria okupatuaren portzentaia eraikuntzan hazi egiten da.</li> <li>• Establezimenduen %57,21 zerbitzu sektorerako jarduerak garatzen dituzte, UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkiko portzentaian azpitik.</li> <li>• Txikizkako merkataritza dentsitatearen gorazko joera.</li> <li>• Zerbitzu sektoreak jarduera ekonomikoaren %33,3a suposatzen zuen 2008an, 2000 eta 2005 artean gehikuntza batekin baina 2008tik jaitsieran.</li> </ul>  |  |
| <b>5.9. Zerbitzuen sektorea.</b><br><b>Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b> |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzuetan okupatutako biztanleria haziz joan da, %67,32 2010ean.</li> <li>• Elexalden zerbitzu sektorea hobetzea garrantzitsua dela uste du Udalak.</li> <li>• Landa hotela (apartamentu aukerara zabaltzen ari dena) eta ostatu batek eratzen dute alojamendu turistikoaren azpiegitura.</li> <li>• Ez dago turismo informazio punturik.</li> <li>• Ostalaritza establezimenduen eta jatetxeen kopuru erlatiboa hazi egin zen 2007 eta 2010 artean baina urte honen gerostik jaitsi egiten da</li> </ul>  |  |
| <b>5.10. Turismo eta hostalaritza sektorea.</b><br><b>Azpiegitura turistikoa.</b>  |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Potentzial turistikoa egon daiteke Zaratamo Sare Berdeko natur ibilbide sarean eta Bilbao Metropolitarraren bizikleta sarean sartuta egoteagatik. Baita ere babestutako hezegune bat egoteagatik Etxerreko Putzua bezala edo ondare arkitektonikoa izateagatik.</li> <li>• Udalak ez du begiesten udalerrian turismo sektorea sustatzeko aukera.</li> <li>• Biztanleria aktiboaren tasa % 48,43koa zen 2010ean, 2001ekoa baino handiagoa baina 2006koa baino txikiagoa eta UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren azpitik 2010ean.</li> <li>• Okupazio tasa 2006an batez bestekoen gainetik zegoen.</li> </ul>   |  |
| <b>5.11. Turismo baliabide eta erakargarritasunak.</b>                             |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria okupatuaren parterik handiena zerbitzu sektoreari dagokio, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoa baino portzentaia altuagoan baina Bizkaikoa baino baxuagoan.</li> <li>• Okupazio mailan bigarren dagoen sektorea industrialak da; UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duen portzentaia baino baxuagoa eta Bizkaia eta EAE-rena baino handiagoa, 2001etik jaitsieran.</li> <li>• Eraikuntza sektoreko okupazioa hirugarren postuan dator, batez bestekoen gainetik.</li> <li>• Nekazaritza eta arrantza sektoreetako okupazioa geroz eta baxuagoa da, hutsaren hurrengoa.</li> <li>• Biztanleria gaztearen okupazio tasa batez bestekoena baino baxuagoa zen 2006an.</li> </ul> |  |
| <b>5.12. Biztanleria aktiboa.</b>  |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2006an genero bretxa batez bestekoen baino handiagoa zen.</li> <li>• Langabezi tasa % 13,45koa zen 2011ko azken hiruilekoan.</li> <li>• Langabezi tasak goranzko joera jasan du azken bost urteetan.</li> </ul>   |  |

| Azpieremua   | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak |
|--|---|--|----------------------|
| 5.13.<br><i>Biztanleria okupatua</i>   |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaratamoko Gizarte Segurantzarako afiliazio tasa, lanerako udalerrri moduan, jaitsiz joan da.</li> <li>• Gizonezkoen afiliazio tasa emakumezkoena baino askoz altuagoa da, UT21 Nerbioi Ibaizabal osoa baino proportzio handiagoan.</li> </ul>  |                      |
| 5.14.<br><i>Langabezia</i>   |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011 urtean mila biztanleko kontratu kopurua 543koa da, zifra altuena duen bigarren udalerrria.</li> </ul>  |                      |
| 5.15.<br><i>Kontratazioa</i>   |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2010ean %15,2 kontratu mugagabe erregistratu zen, zifra altuena duen UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko bigarren udalerrria izanik.</li> </ul>   |                      |
| 5.16. <i>Laneko mugikortasuna, nork bere buruari eustea eta autosufizientzia</i> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan autokontentzioaren tasa hazi egin zen 1996 eta 2001 artean.</li> <li>• Autosufizientzia tasa modu arinean jaitsi zen 1996 eta 2001 bitarte.</li> <li>• Ez dago eskualde mailan enplegu sorkuntza eta orientaziorako zerbitzurik.</li> <li>• Ez dira orientaziora, prestakuntzara eta enplegura zuzenduriko politikarik landu baina Udalak beharrezkotzat jotzen du hauek garatzea.</li> </ul> |                      |
| 5.17. <i>Enplegu eta prestakuntza politikak</i>                                  |  |  |                      |




## LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

### 6. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA



| Azpiheremua   | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak  |
|---|---|--|---|
| <b>6.1. Lurralde eremua</b>                                   |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>10,00 km<sup>2</sup>-ko hedapena, Bilbao Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren barnean.</li> <li>Eraldaketa dinamika nagusienak landatutako baso aloktonoek, etxebizitza zein industri eremuen garapenak eta komunikabideek eragin dituzte.</li> <li>Bi zona desberdintzen dira: zona altua, landa izaerakoa (Elexalde) eta industria zona (Arkotxa).</li> <li>Lurzoru Urbanizaezinak azaleraren %92 hartzen du, lurzoru honen %64 baso lurrak direlarik.</li> </ul>   | <p><b>Udal eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Udal planeamenduaren berrikuspenarekin loturik ondorengo helburuak hausnartu:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Udalerraren gune hondatuen berreskuratzea.</li> <li>✓ Nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babes jarduerak garatu.</li> <li>✓ Eraikuntzan eta zaharberritze lanetan energi eraginkortasuneko irizpideak txertatu.</li> <li>✓ Industria lurzoruen erabilerak aldatu, jarduerak birkokatze leku berriak jarri ingurumen inpaktua txikituz eta ardatz infraestrukturalak berriz diseinatu herri kalitatean efektu negatiboa ekiditeko.</li> <li>✓ Zaharberritu gabe dauden arkitektura ondarearen elementuen zaharberritzea.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Nerbioiko parke lineala ekologi korridore gisa bultzatu.</li> </ul> |
| <b>6.2. Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak</b> |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitzarako lurzoruaren pisu erlatiboa UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko baxuenetarikoa da.</li> <li>Lurzoru Urbanizaezinaren %18 nekazaritza eta abeltzaintzarako eta landazabala da baso eremu egonkorak menperatzen duen bitartean (%64).</li> <li>Azaleraren %50a koniferoen basoak dira, %28a hostozabalen basoak eta %8a herriguneak.</li> </ul>  |   |
| <b>6.3. Hiri egitura eta ehundura</b>                         |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>4 herrigune eta landagune 1 daude.</li> <li>Sakabanatutako etxebizitzetako biztanleriaren garrantzia handi samarra da.</li> <li>Landa eremuan eraiki berriak diren familia bakarreko etxebizitzak daude, zenbait kasutan kontzentrazio maila jakin bat aurkezten dutelarik.</li> </ul>  |   |
| <b>6.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdeguneak</b>           |   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Parke, lorategi eta hiriko gune berdeek hiri lurzoruaren azaleraren (46,81 m<sup>2</sup>/biztanle) %22,86 hartzen dute. Portzentai hau EAE, Bizkaia eta Udaltalde 21-arena baino handiagoa da.</li> <li>Hiri parkeek eta gune berdeek ez dute euren artean konektaturiko sarrerik eratzen.</li> <li>Hiri inguruko parkearen proiektua dago aurreikusita Etxerreko putzuaren inguruan. Proiektu hau eta espazio publikoen eta Ibaizabal ibaiaren arteko lotura epe laburrera gauzatzea lehenasunezkoa dela uste da.</li> </ul> |   |
| <b>6.5. Hiripaisaia eta gune hondatuak</b>                    |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat hondatutako eremu daude.</li> <li>Burbustu, landa izaera eta ondare balio garrantzitsuak dituen auzoa, jendez husten ari da eta soroak abandonatzen ari dira.</li> </ul>  |   |
| <b>6.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala</b>               |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gutioloren inguruan dauden abandonatutako hiru harrobiak leheneratze jarduerak behar dituzten hondatutako eremuak dira.</li> <li>Erein daitezkeen landa lurzoren eskasia dago portzentai oso altua txalet eta familia bakarreko etxebizitzaz okupatuta dagoelako. Gelditzen dena babestu beharra dagoela uste da.</li> </ul>  |   |

| Azpieroemua  | Egoera  | Ondorio nagusiak   | Hobekuntza helburuak |
|--|---|--|----------------------|
